



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko maiatzaren 13a

54. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroan Animaliak Babesteko Foru Lege proposamena. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (2.or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, Uxueko eliza-gotorlekua zaharberritzeko inbertsioari buruzkoa. Galdera erretiratzea (11.or.).

—Galdera, Estrena 2010 azokari buruzkoa. Galdera erretiratzea (11.or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroan Animaliak Babesteko Foru Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak Nafarroan Animaliak Babesteko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroan Animaliak Babesteko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2010eko apirilaren 12an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroan Animaliak Babesteko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako gizartearen gehiengoaren baitan sakonki errotzen ari den oharmena da animaliak sufrimendu-gaitasuna duten izaki bizidunak izatearen gainekoa, eta gainditutako ikusmoldea da gizakia mugarik gabeko eskubide baten jaun eta jabe gisa hartzearena, animaliangan eragin kaltegarri edo suntsigarria daukaten jokabideak aurrera eramateko eskubidea leukakeena; horrekin batera, nabarmena da animaliei alferrikako sufrimendurik ez eragitearen aldeko kontzientzia orokorraren gorakada. Nafarroako gizarteak, bere inguruko

herrialdeetakoek bezala, arbuiatu egiten ditu animalianganako tratatu anker eta umiliagarri guztiak.

Foru lege honen espirituak jatorria du UNES-COK sustaturiko Animalien Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta Europako legeriarik aurreratuenetan, eta honakoan laburbiltzen da: bizitza duin baterako eskubidea, eta, halakorik ezean, oinazetik gabeko heriotza. Era horretan, gure lurraldean legearen babesa ematen dio animaliak arlo guztietan errespetatzearen etika berri bati. Badira jadanik urteak etika hori biztanleria-multzo zabalek berenganatuta daukatela eta defendatzen dutela. Atzenduta egondako etika bat da, zenbait sektoreren soraiotasunaren eta beste batzuek zenbait tradiziori eusteko duten interesaren ondorioz; halako tradizioak non, ankerrak eta umiliagarriak izateagatik, luzaroago eutsi ezinekoak eta jende gehienak arbuiatuak baitira, gizarte batean non ondasun preziatuenen artean bizitza hartzen baita, preziatuena ez bada.

Foru lege honen asmoa da Nafarroako lege-egoera egokitzea sortuz doazen berritasunei eta gure gizarteak arlo honetan izaten duen bilakae-rari.

Foru lege honek animalien babesa arautzen du, eta jomuga nagusizat dauka herritarrek eta botere publikoek gai honen inguruan duten sentiberatasuna areagotzea.

Espresuki adierazten da jabeen arduragabeke-riarengatik abandonatuak izan diren txakur eta katuak hiltzearen debekua; izan ere, eta haien gaineko ardura daukatenez gizalegearen aurkako tratu eman badiete ere, behar bezala artatuak izatea merezi dute, eta beren bizitza duintasun- eta errespetu-baldintzetan egitea.

Orobat arautzen eta mugatzen da partikularrek txakurrak eta katuak haztea, inolako kontrolik gabeko ugalketa saihesteko; izan ere, batzuetan animalia horiek jasan behar izaten dute jabeek abandonatuak izatea.

I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. 1. Foru lege honen xedea da etxe-animalien eta fauna aloktonoaren babeserako arauak ezartzea, animalien babes- eta ongizate-mailarik handiena lortzeko eta animalien defentsan eta zaintzan jokabide arduratsua eta gizalegezko portaera sustatzeko.

2. Foru lege honen ondorioetarako, etxe-animaliatzat hartzen dira basa faunakoak izan gabe pertsonekin hazi, ugaltu eta bizi ohi diren espezie-etakoak direnak.

3. Foru lege honen ondorioetarako, lagun egiteko animaliatzat hartzen da pertsonak etxean eduki ohi duten etxe-animalia, haren konpainia izateko. Foru lege honek sailkapen horretan sartzen ditu txakurrak eta katukak.

Fauna aloktono edo ez autoktonotzat hartzen dira Nafarroako Foru Komunitatearen lurraldean sarturiko animalia-espezieak, beren jatorrikoen bestelako habitatetan bizi direnak, egoera basatian nahiz otzanduan. Ez dira aintzat hartzen okeletarako, esnetarako, arrautzetarako edo giza erabilerako beste gai batzuk lortzeko hazten diren animaliak, abere zamariak edo nekazaritzarako erabiltzen direnak, baldin eta ez badira basati bihurtzen edo haiek edukitzeko beharrezkoa ez bada animaliak beren jatorrizko lekuan harrapatzea eta era horretan haien populazioak arriskuren batean jartzea.

4. Nafarroako basa fauna autoktonoaren babesa arautuko da Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legearen bitartez.

2. artikulua. 1. Animalia bat daukana behartuta dago hura higie- eta osasun-baldintza onetan zaintzera, eta nahitaezkoz ezartzen den prebentzio-tratamendu oro gauzatuko du.

2. Honakoak debeku dira:a) Animaliei tratu txarrak ematea edo haiei oinazeak nahiz justifikaziorik gabeko kalteak eragin ahalko lizkiekeen beste edozein praktika jasanaraztea.

b) Kontsumorako edo gizakiarentzat baliagarri den produkturen bat eskuratzeko diren animaliak akabatzean ankerkeriaz jokatzeko edo metodo orokorrak nahiz justifikatu gabeko mina eragiten dutenak erabiltzea, foru lege honetako aginduak urratuz.

c) Animaliak abandonatzea.

d) Animaliak edukitzea higie eta osasunaren ikuspegitik okerrekoak diren instalazioetan edo animalien arraza eta espezie bakoitzak dituen

beharrizan etologikoen arabera beharrezkoak dituzten zainketa- eta arreta-lanak aurrera eramateko desegokiak diren instalazioetan.

e) Animaliei mutilazioak egitea, salbu eta, al baitarien kontrolpean, premiaren edo betebeharruntzionalen batengatik horrela jokatu behar denean.

f) Animaliei ez ematea garapen normalerako beharrezkoa duten elikadura. g) Animaliak dohaintzan ematea sari, publizitate-erakargarri edo ordain gisa, edo animalien kostu bidezko eskualdaketez bestelako izaera duten beste eskuraketa batzuentzako opari gisa.

h) Animaliak laborategi edo klinikei saldu edo lagatzea, indarreko araudian ezarritako bermeak bete gabe.

i) Animaliak hamalau urteko adinaz beherakoei eta ezgaituei saltzea, guraso-ahala edo jagoletza duten pertsonen baimenik gabe.

j) Lagun egiteko animalien edo bestelako animalien salmenta ibiltarian jardutea, behar bezala baimendutako merkatu edo azoketatik kanpo.

k) Animaliei ematea alferrikako kalteak edo oinazeak sortu ahal dizkieten gaiak.

l) Txakurrak etengabe lotuta edukitzea.

m) Foru lege honek administrazio-izaerako arau-hauste gisa tipifikatzen dituen egite eta ezegiteak gauzatzea.

n) Animaliak herri-festetan erabiltzea, salbu eta zezen-ikuskitzune buruzko araudi indardunak ezartzen duenari dagokionez, edo animaliak erabiltzea bestelako baldintza batzuetan, alegia, Nafarroan animaliekin eginiko herri ikuskizunak tradizionalki arautu dituztenez bestelako baldintzetan.

3. Animaliak gizakiaren kontsumorako hiltzeko, bat-bateko bideak eta minik eragiten ez dutenak erabiliko dira, erregelamendu bidez ezartzen den moduan.

Modu berean jokatu da gizakiarentzat produktu erabilgarriren bat lortze aldera hazitako animaliak hiltzeko ere.

4. Erregelamendu bidez ezarriko dira horretarako kreditatutako pertsonak animaliak ikerketa zientifikorako eta hezkuntzarako erabiltzeko baldintzak.

3. artikulua. 1. Animaliek, beren etiologiaren eta espeziearen arabera, behar besteko espazioa eduki beharko dute toki batetik bestera garraiatzen badira. Garraiobideak eta bilgarriak izanen dira

animaliak aire zabaletik eta aldaketa klimatologiko muturrekoetatik babesteko modukoak; bilgarri horietan, gainera, animalia biziak dauzkatela adierazi beharko da. Bilgarrien dimentsioak animalia zutik egoteko eta posturaz aldatzeko behar bestekoak izanen dira. Animaliak erasokorrak badira, behar diren segurtasun neurriez garraiatu beharko dira.

2. Garraioak eta itxaronaldiak irauten duten bitartean, animaliei edaten emanen zaie, eta behar den elikadura maiztasun egokiarekin ematen zaie.

3. Animalien karga eta deskarga lanak modu egokian egingen dira.

4. artikulua. 1. Debequatuta dago animaliak ikuskizun, borroka eta bestelako jardueretan erabiltzea, sufrimendua eta tratu txarrak eragitea baldin badakarte.

2. Debeku horretatik kanpo geratzen dira beraiaz beren araudi bereziaren arabera eta behar diren baimenekin eginiko zezen-ikuskizunak.

3. Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean debequatuta daude txakurren borrokak, borrokarako oilarren borrokak eta animalien arteko borroka xede duten gainerako praktikak.

4. Uso-tiroko lehiaketak egiteko, ingurumen arloko departamentu eskudunaren aurretiko baimen administratiboa beharko da. Baimen eskaria gehienez ere hilabeteko epean ebatziko da. Baimenak zehaztuko du gehienez ere zenbat pieza hil ahaliko diren. Hilabeteko epea inongo ebazpenik jakinarazi gabe iragaten bada, presuntziosko eginguzaren bidez eskaria baietsi egin dela ulertuko da, baldin eta arau indarduna errespetatzen badu.

5. artikulua. 1. Animalia bat daukanak, jabearen erantzukizun subsidiarioa kendu gabe, animalia horrek pertsonengan, gauzetan, bide nahiz eremu publikoetan eta, oro har, ingurune naturalean eragiten dituen kalteen, galeren eta enbarazuen erantzulea izanen da, kasuan aplikatzekoa den legearen arabera.

2. Animalia bat daukanak, jabearen erantzukizun subsidiarioa kendu gabe, animaliek bide eta eremu publikoak ez zikintzeko behar diren neurriak hartzeko erantzukizuna izanen du.

6. artikulua. Animaliekin krudelkeria, tratu txarra edo sufrimendua dakarten eszenak zinemarako nahiz telebistarako filmatzeko, ingurumen arloko departamentu eskudunaren aurretiko baimena beharko da, eta animalia erantzako kaltea, nolana ere, itxura-egite bat izanen da.

7. artikulua.

Debequatuta dago animaliak edukitzea beren arduradunek haien gaineko kontrol egokia egin ezin duten tokietan. Animalia bat daukanak behar diren neurriak hartuko ditu kalterik edo enbarazurik ez eragiteko hirugarren pertsoneri edo haien ondasunei.

II. TITULUA

Lagun egiteko animaliak

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

8. artikulua. Lagun egiteko animaliatzat joko dira gizakiak mantendutako animalia guztiak, nagusiki etxean edukitzen direnak, plazer hutsez nahiz laguntza emateko, haien gainean dirua irabazteko jarduerarik egon gabe.

9. artikulua. 1. Debequatuta dago katuak eta txakurrak hiltzea administrazio publikoek lagun egiteko animaliak mantentzeko prestatuturiko instalazioetan, salbu eta erregelamendu bidez ezartzen diren osasun-arrazoioak tartean direnean.

2. Nafarroako administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, agindu ahaliko dute, animalien osasun arrazoiengatik nahiz osasun publikoko arrazoiengatik, lagun egiteko animaliak nahitaz txertatzea edo tratatzea.

3. Administrazio publikoko albaitariak eta albaitaritzak-kontsulter artxibo bat edukiko dute txertatzekoak edo nahitaz tratatzekoak diren animalien fitxa klinikoarekin. Artxibo hori agintari eskudunen eskueran egonen da.

10. artikulua. 1. Animaliak dauzkatenek Nafarroako administrazio publikoek ezarritako prebentzio osasun neurriak aplikatuko dituzte.

2. Txakurrak eta katuak dauzkatenek identifikatuta eduki beharko dituzte haiek, erregelamendu bidez ezartzen den moduan. Ale horiek eta haien kumeek ihes egitea ekidinen dute.

3. Toki entitateek, modua duten neurrian, behar diren neurriak eta espazioak ezarriko dituzte animaliek beren funtzio fisiologikoak behar diren higie baldintzetan egin ditzaten, bai eta animalia horien aisiarako ere, pertsoneri eta beste animalia batzuei eragozpenik ez eragiteko eta gaixotasunen eta infekzioen kutsadurak saihesteko moduan.

Halaber, xede horretarako ordutegi jakin batzuk ere ezarri ahaliko dira.

II. KAPITULUA

Animaliak abandonatzea eta jasotzea.

11. artikulua. 1. Animalia abandonatutzat joko da jatorriaren edo jabearen identifikaziorik batere ez duena edo inorekin ez dagoena. Horrelako kasuetan, kasuko udala arduratu beharko da animaliaz, eta berreskuratu, laga edo hil bitartean eduki beharko du.

2. Identifikatu gabeko animaliak berreskuratzeko epea hogeit egunekoa izanen da.

3. Animaliak identifikazioa edukiz gero, jabeari abisatu zaio, eta horrek, une horretatik aurrera, hamar eguneko epea izanen du hura berreskuratzeko. Horretarako, aurretik, animaliaaren mantentzeak eragindako gastuak ordaindu beharko ditu. Epe hori iragaten bada jabeak animalia berreskuratu gabe, beste abisu bat eman beharko zaio eta hamar eguneko beste epe bat eman beharko zaio. Epe hori animalia jaso gabe iraganez gero, animalia abandonatutzat joko da, eta laga ahalko da, edo adopzioan eman.

12. artikulua. 1. Udalei dagokie abandonatutako animaliak jasotzea.

2. Udalek animalia abandonatuak edo galduak jasotzeko behar diren instalazioak eduki beharko dituzte, udalerraren araberako gaitasunarekin, edo udalez kanpoko entitateekin hitzartu beharko dute zerbitzu hori.

3. Nolanahi ere, animalia abandonatuak hartzeko instalazioek erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzak bete beharko dituzte, eta Nafarroako administrazio publikoen menpeko albaitaritza zerbitzuen kontrolaren menpean egonen dira.

4. Animalia abandonatuak edo galduak jasotzeko zerbitzua emateko, udalek edo udalez gaidiko entitateek, aplikatzekoa den araudia betetzeko duten erantzukizuna ezertan kendu gabe, zerbitzua kanpoko entitateekin egitea hitzartu ahalko dute, eta lehentasuna emanen diete animaliak babesteko eta defendatzeko legez eratuta dauden eta irabazi asmorik ez duten elkarteei. Nafarroan horrelako elkarterik ez badago, lagun egiteko animaliak kontrolatzen eta biltzen espezializatutako enprekin kontratatuko da.

13. artikulua. 1. Jasotako animaliak edukitzeko establezimenduek, udalarenak izan, animaliak babesteko elkarten jabetzapekoak izan, partikular ongileenak izan nahiz horretarako baimendutako beste edozein entitaterenak izan, udalen albaitaritza-zerbitzuen kontrolaren pean egon beharko dute, eta honako baldintzak bete beharko dituzte:

a) Dagokion departamentuak propio sortutako erregistro batean izena eman beharko dute.

b) Mugimenduak erregistratzeko liburu bat edukiko dute, behar bezala beteko dutena; hartan, establezimenduko animalien altei eta bajei buruzko datuak agertuko dira, edo erregelamendu bidez ezartzen diren gainerako gorabeherak.

c) Albaitaritza zerbitzua edukiko dute, eta zerbitzu horrek bertan bizi diren animalien egoera fisikoa zaintzeko ardura izanen du. Zerbitzu horrek departamentu eskudunari bertan dauden animalien egoeraren berri eman beharko dio aldizka.

d) Baldintza higieniko eta sanitario onak eduki beharko dituzte. Baldintza horiek, nolana ere, bat etorri beharko dute jasotako animalien premia fisiologiko eta etologikoekin.

2. Instalazio horietan, behar diren neurriak hartu beharko dira beraietan bizi diren animalien eta inguruko animalien arteko kutsatzeak saihesteko.

14. artikulua. 1. Animalia abandonatuak jasotzeko zentroek animalia horiek adopzioan eman ahal izanen dituzte, edo, legez ezarritako epea iraganik, haiek hil. Adopzio-egileak erabakiko du ea animalia esterilizatuta hartu nahi duen ala ez. Animalia horiek albaitariaren ziurtagiri batekin ematen dira.

2. Animalia horien hilketa, esterilizazioa, bizkarroi gabetzea eta txertaketa, kasua bada, albaitariaren kontrolaren pean eginen dira.

3. Esterilizazioa, bizkarroi-gabetzea eta txertaketa, nolana ere, adoptatzaileak ordaindu beharko ditu.

15. artikulua. 1. Animalia bat hil behar izanez gero, ahal den sufrimendu txikiena inplikatzeko duten eta kontzientzia-galtze berehalakoa dakarten metodoak erabili beharko dira.

2. Hilketa albaitariaren kontrolaren eta ardura pean egin beharko da.

3. Departamentu eskudunak erregelamendu bidez arautu ahalko ditu animaliak hiltzeko metodoak.

16. artikulua. 1. Udalek lagun egiteko animaliak dekomisatu ahalko dituzte baldin eta tratu txarren edo torturaren aztarnarik badago, akidura fisikoaren edo desnutrizioaren sintomak badauzkate edo instalazio desegokietan badaude.

2. Osasunaren arloko eskumenak dituzten administrazio publikoek, halaber, lagun egiteko animalien isolatzea edo dekomisatzea agindu ahalko dute, baldin eta gizakientzat kutsagarriak

diren gaixotasunak diagnostikatu bazaizkie, dela sendabide egokia aplikatzeko, dela haiek hiltzeko, beharrezkoa baldin bada.

3. Beste pertsona edo animalia batzuei lesioak eragin dizkieten animaliek, bai eta amorrua edukitzearen susmagarriak direnek ere, albaitariaren kontrolaren menpe egon beharko dute hamalau egunez. Behaketa epea udalak adierazitako zentroan eginen da.

4. Jabeak eskatuta, albaitaritza-zerbitzuek aldeko txostena eman ondoren, txakur erasokor baten behaketa jabearen etxean bertan ere egin ahalko da, animalia behar bezala dokumentatuta egon eta kasuko urteko txertaketa eta identifikazioa jasota badaude.

5. Animaliak jasotzeko udal zentrorik ez dagoen kasuetan, behaketa jabearen etxebizitzan bertan eginen du administrazio publiko eskudunak izendatutako albaitari batek.

6. Animalia horiek atxikitzeak eta kontrolatzeak eragindako gastuak jabeek berek ordaindu beharko dituzte.

7. Udalei dagokie txakur eta katu basatiak bizi-rik harrapatzea, urruneko gerarazte-metodoak erabiliz.

Gerarazte bidezko harrapaketa egiteko modurik ez dagoenean, departamentu eskudunak baimen berezia eman beharko du su-armak erabiltzeko, eta erabaki beharko du harrapaketa-sistema berezi hori nork erabiliko duen.

III. KAPITULUA

Lagun egiteko animaliak aldi baterako mantentzeko instalazioak

17. artikulua. 1. Egoitzek, trebatzeko eskolek eta lagun egiteko etxeko animaliak aldi baterako mantentzeko sorturiko gainerako instalazioek erregistro bat eduki beharko dute, bertara sartzen diren animalia guztien datuekin eta jabearen edo arduradunaren datuekin. Erregistro hori administrazio publiko eskudunen eskura egonen da, horiek eskatzen duten guztietan.

2. Erregelamendu bidez ezarriko da erregistro horretan zein datu jaso behar diren. Gutxienez ere, laborpen oso bat, txertaketari eta bizkarroi-gabetez buruzko ziurtagiria eta eskualdatzeko uneko osasun egoera, bi aldean idatzizko adostasuna barne dela.

18. artikulua. 1. Lagun egiteko animalientzako egoitzek eta gisa bereko gainerako instalazioek albaitaritza zerbitzu bat edukiko dute. Zerbitzu hori arduratuko da bertan bizi diren animalien egoera

fisikoa eta ematen zaien tratamendua zaintzeaz. Sartzeko unean, animalia osasun egoerari buruzko irizpena emanen da.

2. Albaitaritza zerbitzuaren betebeharra izanen da begiratzea animaliak egoera berrian egokitzen direla, elikadura egokia jasotzen dutela eta ez dela inongo inguruabarrik haiei kalterik egin diezaiekeenik. Horretarako, behar diren neurriak hartuko dira kasuan kasu.

3. Animalia bat gaixotuz gero, zentroak berehala emanen dio horren berri jabeari edo arduradunari, eta hark albaitaritza-tratamendu baterako baimena eman ahalko du edo hura jaso ahalko du, salbu eta gaixotasun infekzio-kutsakorren kasuan; izan ere, azken horien kasuan, behar diren osasun neurriak hartuko dira.

4. Animalientzako egoitzen edo gisa horretako instalazioen titularrek ahaleginak egiten dituzte bertan dauden animalien eta inguruko animalien arteko kutsatzeak ekiditeko neurriak hartzeko, eta Administrazio Publikoaren albaitaritza-zerbitzuei jakinaraziko dizkiete nahitaez deklaratu beharreko gaixotasunak.

IV. KAPITULUA

Animalien haztegiak eta salmenta-establezimenduak

19. artikulua. 1. Lagun egiteko animaliak hazten edo saltzen diharduten establezimenduek hurrengo arauak bete beharko dituzte, aplikatzekoak diren gainerako xedapenak ezertan kendu gabe:

a) Erregistro bat edukiko dute administrazio publiko eskudunen eskura. Hartan, erregelamendu bidez ezartzen diren datuak eta aldizkako kontrolak jasoko dira.

b) Baldintza higieniko eta sanitario onak eduki beharko dituzte, jasotako animalien premia fisiologiko eta etologikoen arabera.

c) Behar adina elikagai osasungarri eta ur edukiko dituzte, eta lo egiteko tokiak. Halaber, animaliak zaintzeko gaitasuna duten langileak edukiko dituzte.

d) Gaixotasun kasuetan kutsadura saihesteko edo, kasua bada, berrogeialdiak betetzeko behar diren instalazioak edukiko dituzte.

e) Animalien zaintza sanitarioaz arduratuko den albaitaritza zerbitzu bat edukiko dute.

f) Bizkarroi-abetutako eta gaixotasunik gabeko animaliak saldu beharko dituzte, albaitariaren ziurtagiriarekin edo egoera horren egiaztagiriarekin.

2. Udalek arau horiek betetzen direla zainduko dute.

3. Animaliak saltzeko osasun ziurtagiriak ematen duen albaitaritza zerbitzu bat establezimenduen menpe egoteak ez dio saltzaileari erantzukizunik kenduko, inkubazioan zeuden gaixotasunak edo salmenta garaian atzeman ez direnak direla-eta, hirugarrenei erreklamatzeko aukera ezertan kendu gabe.

V. KAPITULUA

Animaliak babesteko eta defendatzeko elkarteak

20. artikulua. 1. Foru lege honen arabera, animaliak babesteko eta defendatzeko elkarteak dira irabazi asmorik gabeko elkarteak, legez eraturak, animalien defentsa eta babesa xede nagusi dutenak.

2. Elkarte horiek onura publikoko elkartetzat hartuko dira.

3. Erregelamendu bidez zehaztutako baldintzak betetzen dituzten animalien babeserako eta defentsarako elkarteek behar den zentsua eduki behar dute, eta departamentu eskudunaren laguntzaileak izateari buruzko titulua eman ahalko zaie. Departamentu horrek lehentasunez elkarte horiekin adostuko du animaliak babesteko eta defendatzeko jarduerak egitea.

4. Animaliak babesteko eta defendatzeko elkarteek departamentu eskuduna eta udalak premiatu ahalko dituzte ikuskapenak egin ditzaten irregularitasunen zantzuak dauden kasu zehatzetan. Nafarroako Gobernuak laguntzak eman ahalko dizkie entitate laguntzailearen titulua lortu duten elkartei. Laguntza horien xedea izanen da lagun egiteko animaliak babesteko eta defendatzeko jarduerak egitea, familia kualifikatuekin, txakurrak eta katuek esterilizatzeko programetan eta herritarrek sentibilizatzeko kanpainetan.

III. TITULUA

Fauna autoktonoa edo ez autoktonoa

21. artikulua. 1. Espezie aloktonoak sartzeari, hazteari, leku-aldatzeari edo askatzeari, bai ingurune naturalean sartzeko kasuan, bai ustiaketa ekonomikorako edo erabilera zientifikorako sartzeko kasuetan, Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legean ezarritakoaren arabera egiten dira.

2. Babestutzat edo desagertzeko arriskuan daudela deklaraturako espezieak babesteko dira Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itun

eta hitzarmenen arabera eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritakoaren arabera.

3. Artikulu honetako aurreko zenbakietan ezarritakoa aplikatzen ez zaion fauna aloktonoa arautuko da etxeko animaliei aplikatzekoak zaizkien xedapenen arabera.

4. Nolanahi ere, soilik ehizatu, harrapatu, eduki, saldu, merkaturatu, hazi eta erakutsi ahalko dira arestian aipaturako arauetan baimenduta dauden espezieetako aleak, arrautzak, kumeak edo haietatik lortutako beste edozein atal edo produktu.

22. artikulua. 1. Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itun eta hitzarmenen arabera eta aplikatzekoak diren gainerako arauetan ezarritakoaren arabera babestutzat edo desagertzeko arriskuan daudela deklaraturako fauna aloktonoko espezieen kasuan, debekatuta dago haien ale, arrautza, kume edo beste edozein atal edo produktu merkaturatzea, saltzea, edukitzea eta erakustea.

2. Soilik baimendu ahalko da babestutako espezieak Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean eduki eta publikoki erakustea, legeztaturiko erakunde zoologiko edo zientifikoaren arteko truke ez-komertzialen kasuan edo erakusketa zoologiko-etarako edo legezko ikuskizun publikoen kasuan.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ahalmena izanen du arestian aipaturako animaliak dekomisatzeko eta egoera onenean itzultzeko beren ingurune naturalera edo, hori ezinezkoa den kasuetan, legez baimendutako erakunde zoologiko zientifikoei emateko.

4. Toki entitateek agindu ahalko dute, kasuko departamentuaren alde aurreko txostena eman ondoren, lagun egiteko animaliak isolatu edo dekomisatzea, baldin eta albaitariaren irizpidearen arabera, diagnostikatu bada pertsona kutsatu ahal zaizkien gaixotasunak dituztela, dela behar den zaintza-tratamendua emateko, dela haiek hiltzeko, beharrezkoa bada.

IV. TITULUA

Errolda, ikuskapena eta zaintza

23. artikulua. 1. Honakoak dagozkie udalei:

a) Katuen, txakurren eta erregelamendu bidez ezartzen diren espezieen zentsua ezarri eta egitea.

b) Lagun egiteko animalia abandonatuak jaso eta kontrolatzea, eta azken aukera gisa haiek hiltzea, honako bideak erabiliz: zuzenean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin batera ko araubidean edo animaliak babestu eta

defendatzeko elkarrekin edo horretarako baimena duten beste pertsona fisiko edo juridikoekin hitzarmenak eginez.

c) Lagun egiteko etxeko animaliak saltzen, edukitzen edo hazten diren establezimenduak zaindu eta ikuskatzea, zuzenean nahiz Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin baterako araubidean.

2. Udalek eginiko zentsuak Nafarroako Foru Komunitatearen eskuera ongonen dira.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak subsidiarioki jardunen du udalek jarduten ez dutenean, foru lege proposamen honetan xedatutakoaren arabera zaintza eta ikuskapen lanetan.

V. TITULUA

Arau-haustek eta zehapenak

I. KAPITULUA

Arau-haustek

24. artikulua. 1. Foru lege honen ondorioetarako, arau-haustek arin, larri edo oso larritzat har daitezke.

2. Hauek dira arau-hauste arinak: a) Zentsatu gabeko txakur edo katu bat edukitzea, foru lege honen 10. artikuluan ezarritakoaren arabera.

b) Foru lege honetan exijitzen diren artxibo edo erregistroak ez edukitzea, edo osatu gabe edo egunean jarri gabe edukitzea.

c) Lagun egiteko animaliak hamalau urteko adinaz beherakoei eta ezgaituei eskualdatzea, guraso-ahala, tutoretza edo jagoletza duten pertsonen baimenik gabe.

d) Lagun egiteko animalia bat dohaintzan ematea foru lege honetan ezarritakoaren aurka.

e) Lagun egiteko animaliak garraiatzea foru lege honetako 3. artikuluan ezarritako xedapenak bete gabe.

f) Animalien identifikazioari buruzko arauak ez betetzea edo identifikaziorik ez edukitzea.

g) Animaliak albaitariaren kontrolik gabe txertatzea.

h) Txakurrak eta katuak hiri-eremu publikoetara eramatea, uhal batekin edo kate batekin lotu gabe.

i) Lagun egiteko animalien eginkariekin eremu publikoak zikintzea eta eginkariak ez garbitzea.

3. Hauek dira arau-hauste larriak:

a) Animaliak behar den elikadurarik gabe mantentzea.

b) Animaliak ikuspuntu higieniko eta sanitarioetik desegokiak diren instalazioetan mantentzea, edo behar ez diren baldintza higieniko eta sanitarioetan.

c) Animaliak esterilizatzea, haiei mutilazioak eragitea eta haiek hiltzea albaitariaren kontrolik gabe edo foru lege honetan ezarritako baldintzak eta beharkizunak bete gabe.

d) Animaliak ez txertatzea edo haiei ez ematea osasun agintariek derrigorrezkotzat deklaraturako tratamenduak.

e) Lagun egiteko animaliak aldi baterako edukitzea instalazioetan foru lege honetako II. tituluko III. kapituluaren ezarritako baldintzak eta betekizunak ez betetzea.

f) Animaliak saltzea arau indardunetan ezarritakoaren aurka.

g) Uso-tiroa antolatu eta, kasua bada, egitea, aldezturik behar den baimen administratiboa eduki gabe edo baimenean ezarritakoen aurka.

h) Animaliekin eszenak filmatzea zinemarako edo telebistarako, eszena horiek krudelkeria, tratu txarra edo sufrimendua baldin badakarte, aldezturik behar den baimen administratiboa eduki gabe.

i) Animaliak eskualdatzea laborategiei edo klinikei, arau indardunetan ezarritako baldintzak bete gabe.

j) Zentro pribatuetan ez egotea foru lege honetan exijitzen diren albaitaritzaz-zerbitzuak.

k) Animaliak bizkarroiekin edo gaixorik saltzea, edo gaixotasunik ez dutela egiaztatzen duen ziurtagiria eduki gabe.

l) Osasun zerbitzu ofizialei ez jakinaraztea nahitaez aitortzekoak diren gaixotasunak.

4. Hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Foru lege honetako 4. artikuluan ezarritakoa urratzen duten jarduerak antolatzea, haien publikizitatea edo haiek egitea.

b) Animalien ankerkeria, tratu txarrak edo eraso fisikoak.

c) Animaliak abandonatzea.

d) Animaliei ematea alferrikako kalteak edo oinazeak sortu ahal dizkieten gaiak.

e) Txakurrak eta katuak etengabe lotuta edukitzea.

f) Espainiako Estatuak berretsitako nazioarteko itun eta hitzarmenen bidez eta aplikatzekoak diren

gainerako arauen bidez babestuzat edo desagertzeko arriskuan daudela deklaraturako fauna aloktonoko espezieen kasuan, debekatuta dago haien ale, arrautza, kume edo beste edozein atal edo produktu merkaturatzea, saltzea, edukitzea, erakustea eta naturalizatzea.

g) Katuak eta txakurrak hiltzea foru lege honetan ezarritako kasuetatik kanpo.

h) Animaliak abandonatzea, kalte larriak eragiteko moduko inguruabarretan.

i) Txakurren, katuen, oilarren edo bestelako animalien borrokak antolatzea, eta halako ekintzetan parte hartzea.

II. KAPITULUA Zehapenak

25. artikulua. 1. Arau-hauste arinak 100 eta 400 euro bitarteko isunekin zehatuko dira; larriak, berriz, 401 euro eta 2000 euro bitarteko isunekin, eta oso larriak, azkenik, 2.001 eta 20.000 euro bitarteko isunekin.

2. Isunak ezartzerakoan, honako irizpideak hartuko dira kontuan, isunen eta zehapen gehigarrien zenbatekoak graduatzeari dagokionez:

a) Egindako arau-haustek gizartean izan dituen ondorioak eta eragindako kaltea.

b) Legez kanpoko irabazia lortzeko asmoa eta arau-haustea egiterakoan lortutako etekinaren zenbatekoa.

c) Animaliarekin erabilitako ankerkeria.

c) Arau-haustek behin eta berriz egitea edo haietan berrerrortzea.

26. artikulua. 1. Foru lege honetan aurreikusitako arau-hausteengatik zehapenak ezartzeko, erregelamendu bidez araututako zehapen-prozedura jarraitu beharko da.

2. Etxeko animaliekin eginiko arau-hausteengatik zehapen prozedurak abiatzeko eta ebazteko eskumena arau-haustea gertatzen deneko udalei dagokie edo, kasua bada, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari.

3. Fauna aloktonoa babesteko araubidearen arau-hausteengatik edo baimen administratiboaren arau-hausteengatik zehapen-espeditateak abiatu eta ebazteko eskumena Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarena izanen da.

27. artikulua. 1. Animalia jabeak, hori behar den bezala eskatzen zaionean, arau-hauste administratiboaren erantzulea izan den edukitzailea identifikatu beharko du, eta betebeharrak hori prozedura

izapidetzean betetzen ez badu arrazoi justifikatu bat eduki gabe, diru-zehapen bat ezarriko zaio, arau hauste arin baten egilea izateagatik, aurre egin beharreko kalte-ordainak kendu gabe.

2. Foru Lege honetan aurreikusitako zehapen bat ezartzeak ez ditu ezertarako kentzen zehatzaitzeari suerta lekizkiokeen erantzukizun zibila eta kalte-galerengatik balizko kalte-ordainak.

3. Animalia bati tratu txarra eragiteagatik arau-hauste bat egin duen pertsona oro animaliak edukitzeko ezgaitu egingen da. Ezgaitzea aldi baterako –urtebeterako– edo betiko izanen da, arau-haustea larria edo oso larria den, eta animalia eragindako minaren krudelkeria eta intenzionalitatea norainokoak diren.

28. artikulua. 1. Isuna ezartzeak berekin ekarri ahalko du arau-haustearen xede diren animaliak dekomisatzea eta, kasu guztietan, ehiza- edo harrapaketa-arteak eta arau-hausterako erabili diren tresna guztiak dekomisatzea.

2. Arau-hauste oso larriak egiteak berekin ekarri ahalko du arau-haustearen erantzukizuna izan duten instalazioak, lokalak edo establezimenduak ixtea, kasua bada.

29. artikulua. 1. Bere agenteen bitartez, administrazio eskudunak dekomisatu ahalko ditu babestu beharrekoak diren animaliak, betiere foru lege honetako xedapenetan ezarritako arau-hausteen arrazoizko zantzuak baldin badaude.

2. Dekomisatzea prebentiboa izanen da, kasu zehapen espeditatea ebatzi artekoa. Espediente hori ikusita, izan ere, animalia jabeari itzuli ahal-ko zaio edo Administrazioaren jabetzapekoa izatera pasatu ahal-ko da. Administrazioak, gero, zoologiko gisako erakunde bati edo zientzia erakunde bati laga ahal-ko dio; bestela, jatorrizko herrialdeari itzuli ahal-ko dio, edo lehengoratzeko zentro batera eraman ahal-ko du, edo animalia espezie autoktono bat baldin bada, ingurune naturalean askatu ahal-ko du.

3. Dekomisatutako animaliak luzaro edukitzea haien biziraupenerako arriskutsua balitz eta berehala askatu beharko balira, departamentuko kideek askatuko dute animalia ingurune naturalean, lekukoak bertan direla.

Lehen xedapen gehigarria.

Nafarroako Gobernuak, foru dekretu bat eman da, zilegi izanen du foru lege honetan ezartzen diren zehapenak gaurkotzea, kontsumoko prezioen indizea nola aldatu den aintzat hartuta.

Bigarren xedapen gehigarria.

Babestutako espezieetako animalien naturalizatzea Basa fauna eta haren habitatak babestu eta kudeatzeari buruzko martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legearen bitartez ezarritakoaren bidez arautuko da.

Lehenengo xedapen iragankorra.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak foru lege hau guztiz eraginkorra izateko garatzeke dauden arlo guztiak arautuko ditu.

Bigarren xedapen iragankorra.

Urtebeteko epean, Nafarroako udalek arlo honetako beren ordenantzak egokituko dituzte lege honetan ezarritakoen arabera.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indarrik gabe uzten dira Animalien Babesari buruzko maiatzaren 31ko 7/1994 Foru Legea eta honako foru lege honetan ezarritakoaren kontra doazen maila bereko edo apalagoko gainerako arau guztiak.

Azken xedapen bakarra.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

F saila:
GALDERAK

Galdera, Uxueko eliza-gotorlekua zaharberritzeko inbertsioari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2010eko maiatzaren 11n egindako bileran, erabaki zuen Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkezturiko galdera, Uxueko eliza-gotorlekua zaharberritzeko inbertsioari buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2010eko martxoaren 5eko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, Estrena 2010 azokari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2010eko maiatzaren 11n egindako bileran, erabaki zuen Patxi Telletxea Ezkurra jaunak aurkezturiko galdera, Estrena 2010 azokari buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2010eko martxoaren 23ko 28. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

